

Zuria goiak zearka doian
Lumazko odei-lits meia.
Afatsaldeko itxas lokeak
Esne bitsezko ertz zeia.
Ames berotan zakusdan, Andre:
Soin ori baiña garbia!
Zure gorputza arzuri da ta
Zure arima argia.

Zentzuari zuk ez diñotsazu
Garbitasuna ez bada.
Samurtasunik gozoeneko
Neskatx leunena Zeu zara.
Irudi guren, lili-adaska,
Grazi ontzia, lilura ..
Zeure gosetan jasoten doguz
Begi gaixuok zerura.

O,ugar zaren jaseko Birjin:
Zeure bulaña zerua!
Usaiñez ortxe beratu zendun
Zeure abotsan soinuña.
Maitetasuna maite dozuna,
Lañosa-buru biztua...
«Magnificat»'en bertso bakoitzak
Zeure ats ona darua.

Betiraunari artua dabe
Oztiña zure begiak.
Udalenaren odol gordiña

Dauke masailon guriak.
Ule bigunok sorbalda-bera
Ufe ta ezti-ariak,
Ezpan emeok loratan daukoz
Gaiñez darizun ifiak.

Zein eder ditu burestun ofek
Amabi izar argitsu!
Zure adiak gogamenetan
Bikaiñagoak ba-ditu:
Zuk esandako zazpi itz arek
Eguzki-printzak dizditsu.
Argi jarioz diraute oxen
Zeure bulkoen ispilū:

Agur Garbia, beti Garbial!
Zitori eta garia,
Jaungoikoaren ametsik leunen
Erospen-egun-sentia.
Lore zaitugu, gizadiaren
Loretan, lore garaia.
Zeu zara gure zorion-sustrai,
Bizi-gare ta argia.

Zure ezpanok arnasa doguz,
Zure begiok izar bi,
Esku xamuñok abitxu gozo,
Beso altsuok efuki,
Ta Zure «frutu bedeinkatua»
Biotz-arimen pozkari.

AGUR MARIA, NEURE BEGION
EDUR-LORE TA ITARGI!

BUSTINTZA'tar EROSE

1899-1953. Ilberfia beti yaku mingotz; euskal-idazleena, geiago. Joan dan da-
gonilaren 20'an, afats-ilunabafean, sastada bizia ezar euskun biotz-barnean, an-
dere euskal-idazle onen il-bañiak. Ba genkian makal-samar ebiñala, baña ez Jain-
koak ain arin eroango euskunik. «Kirikiño» zanaren iloba genduan; idazle biotz-
samur ta eztiā, mitxeleta egon-ezin antzera, mendi, basefi ta arkaitz-zulo zear
ipuin tximel biñā, iñoiñ nekatu etzana. Idatzi eban guztia baturik, liburu irakur-
gafia osotu daikegu.

640. ABESTI ZARĀ

Eskumendi'ko artzañak
maite nindula iñustan.

Aren berba leun-gozoa
aizeak eroan eustan.

Artzain maitea il zala
aste bi igaro dira;
Gure amesen lora guriak
guztiak igartu dira.

Lañoak berantza datoz...
izafak ostendu dira.
Iretargian mosu zabalak
argirik eztau ein gura.

Itxasuan ur gazia
beztunean mingotza...
Nire bioztxu gaxo-gaxoan
arantzearen arantza.

Tamalez naz, tamalez;
ez daukat alaitasunik,

Ene maitean eriotzea
gomutan daukat bizirik.

Gabean nago negafez;
egunez, bañiz, tamalez:
Aldi guztia igarotzen dot
atsekabe ta samiñez.

Len pozik etorten nintzan
irak ebaten mendira.

Orain, ostera, negafez nago
ardi zuriai begira.

Eskumendi'ko artzañak
maite nindula iñustan.

Aren berba leun-gozoa
aizeak eroan eustan.

641. JOSU'ren BIOTZARI

Josu'ren Biotz gozo-gozua,
maite zaitunen zoruna,
ortxe bañuan sartu egizu
ene biotz ain ituna.

Ludi negartsu zirtzil ontan
arantza artian loreak:
zure Biotzan gozatzen dira
miñez dagozan goguak.

Lañosa eder zuri-gofia,
biotz odolaz sortua;
gau iluneko neke-aruan
miñaren miñaz lortua.

Eguzki-izpi argi-edefak,
laño ilunak uxatu;

oben doloren orban ezaña
maitetasunak garbitu.

Ludiko sakon ilun ontatik
aingeru-egoz ba-nua:
Maitasunaren indar altsuak
zeure ondora narua.

Zitori zuri txukun-txukuna
zure onduan ezerez;
ene bioztxu txiki apala
Zu goratzeko gauza ez.

Kedats lufunen usain gozuak
gogua dauste alaitu...

Josu onaren Biotz gozua
biotzez gurot goratu.

642. SIASKA-ABESTIA

Udabafiko goiz edefetan
lafosonduak loratzen,
ama-biotza maitetasuna
abots gozuaz abesten.

Egun argia igazi da-ta,
gau lañotsua ba-dator...
Zoragarizko lotxo gozua,
geure umiarengana ator.

Ene kuñuna, lotxo egizu
ames gozoen altzuan;
zure sointxua siaskan dago,
gogua bañiz zeruan.

Zugatzetako ofi guriak
ipar-aiziak igitu:
gure txikian siaskatxua
aingeruak kulunkatu.

Odei-landako zelaitxueta
gotzon-taldia jolasten,
umetxuaren omenez dabiltz
danak batera dantzatzen.

Andoni Deunan basoetako
umetxu zoragañiak,
ene laztanai ekañi dautsoz
jostañu miragañiak.

Andrakila ta pitxi politik,
tanbolin eta txistua,
eta ganera burdi eder bat
loraz apaindutakua.

Lañosa eder zuri-goñiak,
krabelin lirain txukuna,
eta zitiori-txorta edeña,
biotz garbien kutuna.

Loratxuakaz atsegindu ta
izar artian jolastu,
beko arantzen samintasanak
emen ez dira txastatu.

Udabañiko goiz edefetan
lañosonduak loratzen,
ama-biotza maitetasuna
abots gozuaz abesten.

ARTEAGA'TAR LAURENTZI, K. O.

Ur-eraiia baizen garden goi-arnasa darion gazte au Mañari'n jaioa dogu, 1917-V-16'an. Lañea'n karmeldar soñiekoa artu, ikaskizun batzuk Gazteiz'en eginda gero, India'n Alwaye'ko karmeldaren Apaiz-Ikastetxe Nagusian apaiztu zan 1940-XII-19'an, 12 urtez an bizi izanik. Aurten, bañiz, Arekipa'ko (Peru) nagusi izentau dabe nagusiak. Naiz ta atzeri zear ibili, maite dau gurasoekandiko mintzoera goxoa; ba-daki gañera eder itufitik bear lez xurgatzen be. Biotz-ondo ikugañi daulako, oldozkun-joskera berarizkoan, uñe pitxiz ornidua dagerkigu olerki-izpiak ofintzean. Onezaz gañera nik esker ona zor dautsat, liburu au osoz-tekoan iñok baño geiago berak bai-daust lagundu.

645. NEGUTXO'REN LILIA

Negutxo gaxoa,
Negutxo txiroa,
itun arpegia,
malkotan begia
—neska gona-zuri—
Miren Amatzuri
zerbait eskatzera
bioztxo minduaz
joan yako uñera
dar-dartan ixotzaz.

Ona aren aña:
—«Amatxo laztana,
eñuki nagizu;
oso txiro nozu.
Lau aizatxoetan
neu nozu landeñen;
nire magaletan
loraik ezta agertzen.
URTE, gure aitak
azken nindun sortu.

Berak nire aitzak
zerbaitez edertu...
Udalen pinpiña
liliz ta lañosez;
Uda eñegiña
uñezko dizdizez,
ta Udagoi otzana
mats eta sagañez...
Il zori egoan
sortu nindunean...